

EUSKAL AEKO BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN INKESTA (BTI)-2012


10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajea, hiriburuetan Donostia dugu aurrena, eta eskualdeetan, Debagoiena

Berrikuntzako jardueren gastua euskal hiriburuetan kontzentratzen da

Eustatek egindako datuen arabera, Euskal AEn 2012an 10 langile eta gehiagoko enpresa **berritzaileen** portzentajea % 38,3 izan zen. Ehuneko hau aldatu egiten da, eskualdeka ikusiz gero.

Arabara aurrena Kantauri Arabarra, non 10 langile baino gehiagoko enpresen %45,7 berritzaileak izan ziren 2012n eta Arabako Gainerakoa (Arabako Mendialdea, Gorbeia Inguruak, Arabako Ibarak), %40,0. Gipuzkoako lau eskualdek dauzkate tamaina horretako enpresen %40 pasa, berritzaileak: Debagoienak (%47,4), Goierri (%43,1), Donostialdeak (%41,2), Tolosaldeak (%40,8). Bizkaian Durangaldeak du enpresa berritzaileen portzentajerik handiena, %40,9; ondoren Plentzia-Mungia %38,0 eta Gernika-Bermeo %37,9.

1. grafikoa: Berrikuntza egiten duten 10 langile eta gehiagoko establezimendu-portzentajea, eskualdeka. 2012




Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta (BTI)

Enpresa berritzaileen ehuneko txikieneko eskualdeak, aldiz, beste hauek dira: Errioxa (%31,6) Araban, Arratia-Nerbioi (%34,4) Bizkaian eta Bidasoa Beherea (%34,5) Gipuzkoan.

Hiriburuetan, Donostiaren (%42,3) eta Bilboren (%36,1) artean ehuneko sei puntu daude enpresa berritzaileetan. Gasteizek %37,3.

2. grafikoa: Berrikuntza teknologikoaren gastuaren banaketa. 2006-2012. (milioi eurotan)



Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta (BTI)

Berrikuntza-jardueretako gastuaz, beti 10 langile eta gehiagoko enpresetan, kantitaterik handienak hiriburuak barne dituzten eskualdeetan egikaritzen dira. Halere, kontzentrazio-maila ezberdina da, batez ere Gipuzkoan. Bai Araban, bai Bizkaian, hiriburua dagoen eskualdean (Lautadan, Bilbo Handian) lurraldeko gastuaren %80 inguru egiten da. Gipuzkoan gutxiago, Donostialdean %42 gastatzen delarik.

Arabak 451,3 milioitik 377,1 Lautadan gastatzen dira eta Bizkaian 1.008,0 milioitik 787,5 Bilbo Handian. Gipuzkoan, ordea, 720,3 milioitik 299,7 Donostialdekoak dira, baina kopuru garrantzitsuak geratzen dira lurraldeko beste eskualde batzuetarako, Deba Garairako 118,2 milioi eta Goierriarako 107,8 milioi. Bizkaian Durangaldea (107,2 milioi) aipatzekoa da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua